



TOLOSAKO
UDALA

TOLOSAKO UDALA

Iragarkia

2019ko uztailaren 15ean, 2019/1223 Alkatetza-Dekretuaren bidez, ondorengo xedapenak onartu dira:

LEHENA.- Udal antolaketa-egitura barruan, Koordinazio Talde bat sortzea, alkateak zuzenduta, eta antolatutako lan-esparru bakoitzeko (Antolakuntza, Herritarrak eta Lurraldea) lan talde bat sortzea.

BIGARRENA.- Koordinazio Taldea hurrengoek osatzea:

- Alkatetzak.
- Lan-esparru bakoitzean eskuordetza orokorra duten zinegotziek: Xabier Balerdi Tolosak, Nerea Letamendia Bellosok eta Begoña Tolosa Mendiak.
- Lan-esparru bakoitzeko erantzukizun teknikoko koordinatzaileak: Begoña Garmendia Vazquezek (ordezkoa: Paulino Alonso Eraso), Jone Miner Aginagak (ordezkoa: Aitor Etxaide Agirre) eta Alaine Izagirre Lopezek (ordezkoa: Garikoitz Lekuona Izeta).

HIRUGARRENA.- Lan-esparru bakoitzeko taldeak hurrengoek osatzea:

- Lan-esparru bakoitzean koordinazioaren ardura duen zinegotziak, aurreko atalean xedatutakoaren arabera.
- Lan-esparruari esleituriko sailen eta azpisailen gaineko eskuordetzeak dituzten zinegotziek, Alkatetza honek emandako 1.208/2019 Dekretuaren arabera.
- Zuzendaritza edo Koordinazio Taldeko dagokion arduradun teknikoak, aurreko atalean xedatutakoaren arabera.
- Lan-esparruko sail eta azpisail bakoitzeko arduradun teknikoak.

LAUGARRENA.- Hauek izatea dira Koordinazio Taldearen eginkizunak: Udaleko administrazio-kudeaketa planifikatzea, koordinatzea, aholkatzea, kontsultatzea, proposatzea, informatzea eta ebaluatzea, baina ez du erabakiak hartzeko eskumenik izango, ezta beste udal organoek eskuordetuta ere.

Zehazki, aipaturiko taldearen eginkizun zehatzak hurrengokoak izango dira:

- A) Udal sail orokorretako gaien ohiko kudeaketa aztertzea.
- B) Sail desberdinetan komunak diren gaiak koordinatzea.
- C) Alkatetzari aholkuak ematea berezko bere eskumenak erabiltzean, Gobernu Batzordeari dagokion aholkularitza gorabehera.



TOLOSAKO
UDALA

- D) Lortu nahi diren helburuen izaera eta maila zehazteari buruz Alkatetzari berri ematea eta proposamenak egitea; halaber, helburuen lorpen-maila kontrolatzeko lanetan laguntzea.
- E) Alkatetzak egokitzat joko dituen beste gai orokorretan laguntzea.
- F) Hilabeteko kudeaketa-txostena prestatzea.

BOSGARRENA.- Hauek izatea lan-esparru bakoitzeko taldeen zereginak: lan-esparruko administrazio kudeaketaren antolakuntza, koordinazioa, aholkularitza, kontsulta, proposamena, informazioa eta ebaluazioa.

Zehazki, aipaturiko lan taldeen egitekoak hurrengoak izango dira:

- A) Esparruko gaien ohiko kudeaketa aztertzea.
- B) Esparrua osatzen duten sail eta azpisailtako gaiak koordinatzea.
- C) Lortu nahi diren helburuen izaera eta maila zehazteari buruz Alkatetzari berri ematea eta proposamenak egitea; halaber, helburuen lorpen-maila kontrolatzeko lanetan laguntzea.
- D) Alkatetzak egokitzat joko dituen beste gai orokorretan laguntzea.
- E) Hilabeteko esparruaren kudeaketa-txostena prestatzea.

SEIGARRENA.- Taldeek finkatzea bilerak noiz egingo diren eta funtzionatzeko beste alderdi batzuk. Subsidiarioki, aplikatuko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean, urriaren 1ekoan, aurreikusitako kide anitzeko organoen funtzionamendu-erregimena.

ZAZPIGARRENA.- Dekretu honen berri ematea Osoko Bilkurari hurrengo Osoko Bilkuran, eta argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta bere web orrian.

Tolosan, 2019ko abuztuaren 2an

Jarduneko Alkatea

Nerea Letamendia Belloso



TOLOSAKO
UDALA

AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

Anuncio

Mediante el Decreto de Alcaldía n.º 2019/1223, de fecha 15 de julio de 2019, se ha resuelto lo siguiente:

PRIMERO.- Crear un Equipo de Coordinación, dirigido por la alcaldesa, dentro de la estructura de la organización municipal, así como crear un grupo de trabajo por cada ámbito de trabajo (Organización, Territorio y Ciudadanía).

SEGUNDO.- Que el Equipo de Coordinación lo conformen:

- La Alcaldía.
- El concejal delegado y las concejalas delegadas de los ámbitos de trabajo: Xabier Balerdi Tolosa, Nerea Letamendia Belloso y Begoña Tolosa Mendia.
- Los coordinadores técnicos y coordinadoras técnicas responsables de cada ámbito de trabajo: Begoña Garmendia Vazque (suplente: Paulino Alonso Eraso), Jone Miner Aginaga (suplente: Aitor Etxaide Agirre) y Alaine Izagirre Lopez (suplente: Garikoitz Lekuona Izeta).

TERCERO.- Que los grupos de trabajo de cada ámbito los conformen:

- El concejal o concejala responsable de la coordinación en cada ámbito de trabajo, conforme a lo estipulado en el punto anterior.
- Los concejales y concejalas que ostentan las delegaciones de las áreas y subáreas de cada ámbito de trabajo, de acuerdo con el Decreto de Alcaldía 1.208/2019.
- El técnico o técnica correspondiente de la Dirección o Grupo de Coordinación, conforme a lo estipulado en el punto anterior.
- El personal técnico responsable de cada área o subárea de cada ámbito.

CUARTO.- Que las funciones del Equipo de Coordinación sean las siguientes: planificar, coordinar, asesorar, consultar, proponer, informar y evaluar la gestión administrativa del Ayuntamiento, pero nunca tendrá competencia para adoptar decisiones, ni tan siquiera mediante la delegación de otros órganos municipales.

Concretamente, las funciones de este Equipo serán las siguientes:

- A) Examinar la gestión ordinaria de las áreas generales del Ayuntamiento.
- B) Coordinar los temas comunes a diferentes áreas.
- C) Asesorar a la Alcaldía en el ejercicio de sus competencias propias, sin perjuicio de la asesoría que compete a la Junta de Gobierno.



TOLOSAKO
UDALA

- D) Informar y proponer a la Alcaldía del carácter y del grado de definición de los objetivos que se desean cumplir, y, asimismo, colaborar en las tareas de control del grado de ejecución de las acciones.
- E) Colaborar en otros temas generales que la Alcaldía considere oportunos.
- F) Elaborar el informe de gestión mensual.

QUINTO.- Que las funciones de los grupos de trabajo de cada ámbito sean las siguientes: organizar, coordinar, asesorar, consultar, proponer, informar y evaluar la gestión administrativa del ámbito de trabajo.

Concretamente, las funciones de estos grupos de trabajo serán las siguientes:

- A) Examinar la gestión ordinaria de los temas del ámbito.
- B) Coordinar los temas de las áreas y subáreas que conforman el ámbito.
- C) Informar y proponer a la Alcaldía del carácter y del grado de definición de los objetivos que se desean cumplir, y, asimismo, colaborar en las tareas de control del grado de ejecución de las acciones.
- D) Colaborar en otros temas generales que la Alcaldía considere oportunos.
- E) Elaborar el informe de gestión mensual del ámbito.

SEXTO- Que el Equipo y los grupos determinen el calendario de reuniones así como otras aspectos relacionados con el funcionamiento. De forma subsidiaria, se aplicará el régimen de funcionamiento de los órganos colegiados previsto en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

SÉPTIMO.- Notificar la presente disposición al Ayuntamiento Pleno en la próxima sesión que celebre, así como ordenar su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y su página web.

Tolosa, 2 de agosto de 2019

La alcaldesa en funciones

Nerea Letamendia Belloso